



## BAKIOKO EUSKERA

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskera. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: «urtarrila», «alabea»
- Bakion zelan esaten dan: «(urtérrille, alabie)»

Urteko ileak	Asteko egunak	Urtaroak
urtarrila (urtérrille) zezeila (seséille)	asteleena (astélena) martitzena (martítzena)	negua (negúe) udabarria (udebárridxe)
martia (martídxe) apirila (apírrile)	eguaztana (egústena) egüena (egúena)	udea (udie) udagoiena (udegoidxena)
maiatza (maiézza) bagila (bagílle) garagarrila (garágarrillé) abuztua (abústué) iraila (iráillé) urria (m'ródxe) zemendia (seméndidxe) abendua (abéndue)	barikua (baíkie) zapatua (sapátue) domekea (domékie)	

Ona emen euskeraz erabilten doguzan artikulua (ZER kasuan):

-a (bat) : odola, gizona, ura, adarra, babeska, taketa,...  
-ak (batzuk): odolak, gizonak, urak, adarrak, babesak, taketak,...

Artikulua berbearen (izena/adjetiboa) erroari atzean geituten jakoz:

berba-erroa: gizon  
artikulua: -A (bat) / -AK (batzuk)  
berba-erroa + artikulua: gizon+A / gizon+AK

Bakioko euskera bizkaiera da. Bizkaierearen barruan iru sistema dagoz: -EA / -IA / -IE izenekoak. Bakioko euskera -IE sistemakoa da: (alábie). Sistema orren ezaugarriak urrengo oneexek dira:

(batentzako)

-a+a = -ea (-ie)	alaba+a = alabea (alábie)
-e+a = -ea (-ie)	ume+a = umea (umíe)
-i+a = -ia (-idxe)	txarri+a = txarria (txarrídxe)
-o+a = -oa (-oa)	asto+a = astoa (astóa)
-u+a = -ua (-ue)	buru+a = burua (burúe)

(batzuentzako)

-a+ak = -ak (-ak)	alaba+ak = alabak (alábak)
-e+ak = -eak (-iek)	ume+ak = umeak (umíek)
-i+ak = -iak (-idxe)	txarri+ak = txarriak (txarrídxe)
-o+ak = -oak (-oak)	asto+ak = astoak (astóak)
-u+ak = -uak (-uek)	buru+ak = buruak (burúek)

Beste adibide batzuk:

-a+a = -ea: ezpata-ezpatea (espátie), berba-berbea (berbíe),  
-e+a = -ea: etxe-etxea (etzíe), seme-semea (semíe),...  
\_i + a = -ia: ogi-ogia (ogídxe), euli-eulia (eulídxe),...  
-o+a = -oa: arto-artoa (artóa), baso-basoa (basóa),...  
-u + a = -ua: esku-eskua (eskúe), erru-errua (errúe),...

Bakion lez, urrengo erriotan be -IE sistema erabilten da:

Mañu-Meñaka-Fruiz-Arrieta-Erriogiti-Morga-Muxika-Gernika-Lumo-Ajangiz-Gauegiz-Arteaga-Ibarrange-lu-Ea-Arratzu-Kortezubi-Ereño-Nabarniz-Mendata-Munitibar-Zornotza-Iurreta-Garai-Durango-Abadiño-Izurtza-Mañaria-Atxondo-Aramaio .

**Iniaki MARTIARTU**



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

---

## SALATZEN DOGU...

---

1. Latinkeri biurtzeraiño, euskerak gaur jasaten dauan ainbat eta ainbat erdal itzen eraso zitala, salatzen dogu.
2. Erderaz pentsatuz, euskerara biurtzen dabenen joskera trakets eta ulerteziña, salatzen dogu.
3. Euskerari ekarten yakon kaltea ikusi ez dabenen erri-erakundeen eta politiku alderdien ardura-eza, salatzen dogu.
4. ETB-k eta agintarien mezu-bideek geienetan darabilen euskera ezain eta endekatua, salatzen dogu.
5. Aldizkari ta egunkari geienak be, orrexegaitik, salatzen doguz
6. Erri-erakundeek indarrez jarri dauskuen erri-euskeratik guztiz urrundutako izkerea, salatzen dogu.
7. Erritarrek ulertzen ez daben euskera erabiliz, erakundeak euskerari dakarkioen ondapena, salatzen dogu.
8. Bizkaitar ikasleak euren etxekoa ez dan euskeraz irakatsiak izatea, salatzen dogu.
9. Aoskatzen ez dan «H»z jositako idazkera zentzunbakoa indarrez sartzea, baita ain jatorrak diran «N» ta «LL» otsak kentzea be, salatzen dogu.
10. Bedarona orde Bedaro, Bilbao-Bilbo, Galdakano-Galdakao, Laukiniz-Laukiz, Lazkano-Lazkao, Lemona-Lemoa, Sopelana-Sopela, Otxandiano-Otxandio, Zestona-Zestoa,...eta beste erri ta tokien izen-laburpenak, salatzen doguz.
11. Euskera zaintzeko ta goraltzeko ardura erabili-bearrean -orretarako sortu zan-eta-, euskera ulergaitza aurrera eroateko bereiziki aalegintzen dan erakundeak salatzen dogu.
12. Euskera zaintzeko ta irakasteko aspalditik sortu ziran erakunde batzuk euskerari dagokiozan arazoetatik baztertuak izatea, salatzen dogu.
13. Azkenez, goian aipatutakoak eurokin zerikusirik ez bai leben, ainbat eta ainbat euskotarren euskerarekiko ardurabagekeria, salatzen dogu.

EUSKERAZAINTZA

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

# JOSE SAGARNA ABADETZA TA ERIOTZA

## JOSE SAGARNA: ABADETZA TA ERIOTZA

Arratia aldeko abade baten barriak dirala ta, beartxorik geien au 1965 garren urterik egiña daukat. Da argitaratzeko lekurik egokiena, gertaukoen ingururko tokian argitaratzea baño, al izan ezkerro, zer obarik?

Jakiña da liburu eta pelikularen bat be ba zala Euskal Erriari eta bertoko abade afusilleukoeri buruz, Francoren denporan edo egiña, baña guzurra dariola zer edo zer iñoena.

Historia de la persecución religiosa en España 1936-1939 liburu orretan esaten da "que los curas y frailes (vascos) fueron fusilados acusados de actividades separatistas". Amalau afusilleukoen izen orreitan zazpi errakuntza dagoz, da auxe be badiño: "los 14 clérigos fusilados fueron condenados detenida o sumariamente por tribunales de guerra bajo acusación de actividades políticas de separatista". Antza danez, ori ez da egia, 14 ildakoetatik bateri be ez eutsielako iñungo eta ezertariko salaketarik leporatu. Baña guztiokaz egin ebena auxe ei zan: Detenidu eta gero afusilleu, ezertako eta iñungo tribunalen aurreko agerpenik egin barik.

Amalau abade ildakoen arteko bat, Jose Sagarna. Jaiotzaz eta semez, Arrati aldeko Zeanuri errikoa izan zan. Guztiak Mugika obispo jaunaren eleiz-barrutikoak izan ziran. Gorrien aldetik be obispo jaunari beren anai Juan, Agustinoa il eutsoen; Alberto Onaindiak «Hombre de paz en la guerra» liburuan diñoen lez. (1)

Españako Frente Popularrari 7.937 abade, obispo eta erligiosoaren eriotzak leporatuten dautsoez eta il orreien artean Euskal Errikoak be egozan. Eta Franco'tarren eskutik Araba, Nabarra, Gipuzkoa eta Bizkaian 21.780 ziran garbitu edo afusilleukoak.



(1) Alberto Onaindiak. «Hombre de paz en la guerra» Liburuan diñoenez.

Argazki onetan jezarrita dagozenaren artean, 1935'garren urteko bagillean, Jesusen Biotzaren egunean lenengo mezea emon eben Zeanuriko sei abadeak. Obispo jaunaren alboetan, iru eta iru. Zuriz jantzita dagoen obispoa, semez Igorrekoa zan, Artaraz jauna, Wuacnich, Vietnan, Vecon aldean obispo egoena. Onen eskoi-aldetik asita, lenengoa Leonardo Atutxa, gero Eladio Agirre eta irugarren Jose Etxezarraga. Artarazen alboan D. Mateo Mugica obispo jauna, eta onen ezkerraldeetik asita, lenengoa Juan Añibarro, gero Jose Sagarna eta irugarren Gisasola.

Leonardo Atutxa beren abadetzea egiten Arabako erri batera joan, makaldu eta Zeanurira ekarri eben.

Eladio Agirre, au be Arabako erri batera abadetza egiten joan zan, da gero Zornotza, Iyorreta eta Ameriketako Colombia eta Venezuela naziñoetan ibili zan.

Jose Etxezarraga, Zalla errian abade egon eta Madrillen il zan 39 urte zituela 1950'garren urtean. Onen gorpua Zalla errira ekarri eben.

Juan Añibarro, Arabako Murgia errian egon zan abade eta gero beste erri baten be bai. Gero, Iruñan, Nafarroan, eta andik Errigoitira etorri zan.

Jose Sagarna, Markiñaldeko Amalloa Larruskain'en abade egon eta abadetzako urteagarrenean Franco'tarrak afusilleu egin eben, 24 urte zituela.

Máximo Gisasola, Arabako Barron errian egon eta Zornotzara etorri zan. Ortik, Gazteizko Seminariora eta andik Los Rios deritxon Ecuador aldeko lurraldetara, abade talde baten buru zala joan zan. Los Ríos Mixiñoetako sortzailatzat agertzen dabe. Los Ríos, Guayaquil eta Guaranda aldeko yenteak santu antzekotzat dauke. Maximoren oroigarri 1965'garren urteko iraillaren batean, brontzesko irudi bat Zeanuri errian agertu eben.



Eleiz alboan dagoen iragarki orretan auxe diño: AMALLOA-JEMEIN-LARRUSKAIN. Jose Sagarna, eleiz onetan egoan abade, eta afusilleau eben egunean, eleiz onen dorrea Amulategi baserri aldetik begien bistan egoala il eben, iltzaleeri eskari au orrela eskatu ta gero: al dala eleiz dorrea begi bistan dala il dagiela.

Jose Sagarna Larruskainen egoala, errotako etxeokakaz bizi zan. Andik goragoko beste etxe baten, famili bako gizon eskondu bat bizi zan, eta beroneri leporatuten eutsoen eskolako maistregaz ibilten zala eta ago-miñean ebillen. Famili bako jaun orrek Jose bere etxera eurakaz biziten eroan nai zuan, maistrearen berbakizunak orrela ixiltzeko asmotan edo. Baña abade gazteak esan ei eutson errotakoak seme bat lez daukela da ezin zala joan.


Aurretik egoneko abadeak be zeozer esan eban maiestreari buruz, eta Sagarna abadeak be omilia baten esan ei eban, ez bearreko gauzak sortzen direla ta olakoak, da eskondu arek beretzakotzat artu.

Gerra denpora zan da Billaerreal (Legutiano'ko) atakeak be urri bigarreanean ziran. Orduan, Jose eta beste batzuk be gerratik aldendu gura-eta, itxasoz Ondarrutik Iparraldera joateko asmoz egozan. Larruskain'etik Berriatuara urten eta beragaz joan ziranari ezin zala aldendu esan eutsen Josek, errikoak abade barik geratzen zirala-ta, berak iñori ez eutsola iñoiz ezer egin, eta ori esanaz bera egoan lekura, Larruskain'era eldu zan, atrapauko eben bezperaren eguerdian.

Gerrea zan eta Franco'tarrak Markiñalderantza sartzean abiatu ziran. Frente biak aurrez-aur egozan, Larruskain, Berriatuan da, bai areik eta bai bertokoak, Markiñen bistan. Jose, Mandiola aldera Berriatua aldetik eldu zanean, maiestregaz ibilli ei zan gizonak ikusi, eta antza beste bategaz abadea salatu, abadea au zala edo bestea zala esanaz. Illuntzean atrapau, Mandiola baserrira eroan da txarri-kortan sartu eben gaba eiteko. Franco'tarrek Mandiola baserria komandantzi edo kuartel antzekotzat euken.

Preso egoneko lekutik Jose Amulategi baserrira eroan eben. Berton be gudari erreketek egon ziran, eta kortan egozanak arisko frakadun gazte bat yaka marroi bategaz ekarriela ikusi, baña iñork ez zuen pentsa uste bakorik gertauko zanik.

Sagarna, beren abadetzan Larruskain'eko lekuetara joaten zan eleiz barrutikoak egiten. Amulategi baserrira be bardin, gari bedeinkatzen, gexoak bixitetan da eleiz zeregiñetan. Amulategi be ondo ezagutzen eban.



Argazki onetan Amulategi baserria. Iñork ez eban pentsetan abadea ilko ebenik. Eta arrituta geratu ziran kapitanak Jose ilteko boluntarioak eskatu zituenean. Boluntario iñor ez zan prestatu, eta kortan egozan erreketek negarrez asi ziran. II aurretik erreketen abade kapillauak Jose konfesau eban, da karabineruen komandanteari esan eutson gaztea ez ilteko, ze ilten ba'da Jaungoikoak ogetalau ordu barruan kastigu gogorren bat berari be emongo eutsola. Goizeko zortzirak edo zortzita erdiak inguru ziran Jose Sagarna afusiletan eroan ebenean. Ilten doiala, apur bat gorago il al deurien Josek eskatu, Larruskain'eko eleiz dorrea ikusten dala, eta torreari begira afusilleu eben. Tiroak entzun orduan etxeko kortan egozan erreketek negar baten asi ziran, euren komandante eta kapitanak gizon a ilbearragaitik. Baña ixilik Amulategiko etxearen baleustradara urten eta Julian Zabala aititek euren abade gaztea ilten ikusi eban, amama etxe barruan egoela.

Jose il eta gero esan eben : "Muerto sin motivo aparente". Eta il eben lekutik ur-xamar, sagar arbola bat egoan eriotzaren testigantza egiteko. Bi amonean, ogeitalau ordu barruan Mandiola baserrira kañonazuen batzuk bota ebezan, eta urrutuekaz bi edo zaurituak be izan ziran, baña txarto egoana Jose afusilletan bialduko kapitana, «komandantea» zan eta Mandiolatik kamillen Amulategi baserritik eroan bear izan eben, eta Jose bezperan illeko leku aurretik komandantea eroan eben besoak mogiduten zituela, Elgoibar edo Mendaro edo ortiko euren osategira, baña bidean eroiela karabiñeruen komandantea izanekoa il egin zan.



Amulategiko Juan Zabala oraintzuko argazki batean. Amar urteko mutiko zala Larruskain'eko elizan Jose Sagarna abadeari, monagillo izanik, mezea erasoten eutson.

Gurutze au Jose afusilleuko lekuan dago bere izenagaz il ziran guztien oroimenez. Orain urte gitxi dala jarri zan. Lenagotik soloak eta besterik ez egoan. Arbolarik be ez. Gaur ingurua piñuz jantzita dago. Argazki au kurutzearen ostetik egiña da eta mezua besteko aldean geratu. Gurutze ostetik begitu ta Amalloako eleiz dorrea paraje ikusten da,

## GOMUTAZ



piñu andiok ezpalegoz. Metroko zelaikada baten arriak oñarri egiten dabela, bertotik kurutzearen altuerea metro bat eta irurogeitamar zentimetroko luzeratan dago; eta besoak, alderik alde larogei ta amazpiko zabaleran. Eta lodi eratan ogeita bi terdi zentimetroko kuadruan eginda dago. Kurutzeko mezuak auxe diño: **SAGARNA ETA URIARTE'TAR JOSE (APAIZA) J. 1911-X-14/1936-X-20.**



Larruskain'eko Ortu Santu au ertz barru txikerrekoa da. Luzeera, ikusten dana, eta zabalera be orren bestekoa edo da. Jose Amulategin il orduan, ondoren, gorpua manta baten barruan batu da Larruskain'eko Ortu Santuan, lur bedeinkatu orretan lurperatu eben. Orain urte batzuk, baltzez dagoen gomutarri ori etxeok jarri eben, aren azurrak jaioko errira eroeteko asmoa azalduz. Baña Amalloakoen artean ez ebien iñoren baimenik lortu. Geroago zabaldu da Joseren gorpua osorik dagoala.

Amulategi baserri-aldean, Jose ilda erori zan lekutik metro gitxitara, sagar-ondo andi bat, sagar gazea, sardan-sagarra, sagardoa eiteko sagarrak emoten zituan arbolea dago. Sagarrak onek, andik alboan erreñeta sagar bat eukan eta besterik ez egoan. Aurten 1998'garren urtean, San Juan aurreko eguenaren eguerdi ostean gertatu zan eta, berrogei urte izango dira ikeragarrizko denporalea egin ebal,

trumoi, tximistea, euri, baita bildurgarrizko aizea ta abarrak be egiten ebezala. Eta orduan, eguerdi orretan, denporale ta afruntu arek Amulategi baserri aldean egoan sagar gaza arbolea erpa erpatik suster eta guzti atara ta bota ei eban eta jausita geratu zan. Eta sagarra egoneko leku aretan pertsona garriragiño sartzeko lango zulo andi bat itxi, jausiko sagar arbolea andia zan da.

Andik sei illabetera, jausita egoan sagar ori, ebagiteko be izan ziran; baña Azaroaren amairuko gaubean, eguena zan, da gaubean lehago jausita egoan sagar arbolea, lenago egoneko lekuan, sagar arbolea zutundu egin zan, suster andi bat bistan eukala, eta zutun-zutunik geratu. Gau orretan euri lanparra izan zan, eta jaso iñork ez eban egin.

Sagarra zutunik egoala ikusirik, bai etxeok baita ingurukoak be kasu ori arrarotzat artu eben eta Amulategi baserriko Juan jaunak urkuluek ifiñi, ta gogor, sagarra jausi ez daiten, baña anaiak ikusi ta Juaneri esan eutsen: A jaso dauenak ez ebiela urkulurik bear da urkuluek kentzeko. Eta kendu ebazan.

Sagarrari urkulluek gogorrean sartzan ibilli orduan, sagarrari marka geratu, eta guardi zibilak etxeokari errua bota, sagarra eurak altsa ebiela poleakaz eta soka luzeakaz urriñeko arbolaren bateri lotuta edo, eta etxetik ez urtetako esan da iñora urtetan be itxi ez. Errietatik eta yente asko urreratuten zan sagarran inguruko kasuok jakitera, kasuok normalak ez zirala ta. Baia geienetan guardia zibillak basoetako bide guztiak artuta eukezan eta Amulategira joaten iñori be itxi ez.



Sagarra zutundu zanik eta lau aste justuetara, Azaroaren amairuko eguenetik laugarren asteko eguen gaubean, sagarra barriri jausi zan da geiago ez zan jaso, baña susterren bat edo lur-barruan geratu eta bigarrenez jausi zan arboleak orain lau urterartiño bizirik iraun dau, berde egoala, eta nai ta asko ez emon, lora ta frutu emoten ebazan. Bigarrenez jausi ta gero sagarra gaur dagoen tayuan geratu zan.

Ondo egin-gurean, eta berde egoala, orain lau urte Juan jaunak sagar orren inguruak atxurtu eta apaindu ebazan, baña antxiñeko esakeratatik, arbola zarrak ez dau nai apaintzerik eta orretaz, orain lau urte sagar-arbola ori igertu egin zan. Argazki au aurtengo Otsailaren 13an egiña da.

Jose Sagarna il eben 1936'eko urtetik, berrogei urte geroago, Nafarroa'tik Markiñera gizon bat etorri zan, laguntzat semea ekarrela. Amulatgi ta inguruak ikusi nai zituala eta galdezka ibilli zan ia berari laguntzeko moduen iñor ez ete egoan. Lantegi batera be agertu zan da berton be esan eutsoen leku eta paraje aretara joaten bada, bidean galdu edo egin leitikela. Baña gizona mesedezko erreguetan ebillen eta ainbesteko premiaz, ba gizon batek lagundu etuson, gaur Markiñeko alkate dan Lauren jaunak. Joan ziran eta napartarrak amulategi urrunetik ezagutu ta eldu zanean belaunikatu, besoak zabal zabalik jarri eta zerura adi geratu zan. Berrogei urte lenago Amulategiko kortan egoneko gudari erreketete bat zan eta Jose Sagarna ikusi eban bat. Gizon arek, gero, orduko eta euren arteko barri zarren kontakizunak esan zituan.

"Al entrar los requetes en el centro del pueblo de Markina solían decir: Hemos conquistado otro pueblo para Dios".

Donostia aldean be erreketeteak sartu ziranean auxe eta olangoak be esaten ebezan: «vamoj a acaba con todoj loj vajco». Soldau orrein artean be euskaldun gazte batzuk egozan, eta orrelakoak entzunik, ixilik egon bear bada ezpada be. Gorrotoaren propagandak olangoak ekarten dituez, Euskal Erriari, Euskal Herrikoeri eta Euskaldunari gorrotoa erakutziz. Konplexux besterik bizi diran pertsonak errukigarriak izaten dira, baña tartean Euskal Errikoeri bakean itxi ezin, ori da untzea. Ona emen Largo Caballero jaunak errepublika denporan Bilboko Cine «Euskalduna» orretan beren itzaldian esan zituan berbak: "Todavía tengo que lavarme las manos con la sangre de los curas"; eta berton egozan askok gortuteko beste txaloak jotzen asi ta arek: «caballeros callaros mecagoen d...»; eta txalo otsak ekin eta: "he dicho que os calléis, borregos..." Itzlari baten agotí gatx bide eta ikeragarritzko berbok entzun bearrak, izlari geiago ikusten joateko gogo guztiak nire aiteri kendu eutsozan.

Gerrea asi eta Abendurañoko bitartean Franco'tarrak afusilleuko 14 abade euskaldunak, onexek izan ziran: D. Martin de Lecuona, D. Gervasio Albizu, D. Aristimuño, D. Joaquín Arin, D. Jose Marquiegi, D. Leonardo Guridi, D. Alejandro Mendikute, D. José Peñagaricano. D. Celestino de Onaindía, D. Joaquín Iturricastillo, D. José Adarraga, D. José Sagarna, Rvdo. P. Otaño, Rvdo. P. Tomás de San José. Zer dala ta? Mugika obispoak Gomá kardenalari: "...desde Franco hasta el último soldado debieron -no matar al Venerable y

ejemplarísimo arcipreste de Mondragón y otros sacerdotes-sino besar las huellas de sus plantas".

Aita Santuari 1938'garreneko urtean LES CLERGE BASQUE informearen presentaziñoa egin eutsien eta arek D. Mateo Mugikari abade afusilleu bakoitzaren informeak eskatu. Erantzuna au ei zan: "Todo elemento que hacía algo por la cultura vasca le eliminaban Franco y los suyos".

Marqués de Magaz izan zan Franco'tarrak Baticano'n euki eben enbajadorea eta aita Santuak galdetu ei eutson: "qué era de los sacerdotes vascos fusilados", eta erantzuna: "calumnia de los rojos".

"Nabarra también pagó su precio por ser lo que siempre ha sido y es, por ser vasca, con 15.300 muertos efectuados por las tropas franquistas. Además de fusilados hubo también desterrados y desaparecidos".

"¿Quién bombardeó Gernika? Después del suceso, la maestra en la escuela de Ajanguiz, a los niños. Todo aquel niño que respondía «los alemanes» era castigado con un día de calabozo, solamente por decir la verdad. La tropa fascista imperial entre otras personas la misma pregunta se la hicieron a una anciana en la propia Gernika y respondió: «dicen que hay que decir que los rojos»".



Jose Sagarna atrapau ebenean, argazki onetan dagoan zagiak lotuteko kordel onegaz eskuaz lotu eta orrela afusilleu ebien. Illak, desagertuak, desterruak eta destituziñoak be Euskal Erriko eleiz-gizonen artean ez ziran falta. Destituziño edo desterruz zigortuz, zigortuen artean be, olako oneik izan ziran: D. Mateo Mugica obispo jauna, bikario general bat, exbikario general bat, 3 kanonigo, 2 sekretario, Seminarioko erretore bat, bizerretore bat, 7 arzipreste, 65 parroko (batzuk ilteko zorian), 33 erligioso karmelita (bat afusilleuta), 21 jesuita, 37 kaputxino, 4 frantziskano, 13 pasionista, 100 abada eta koadjutore (asko betirako espetxeagaz edo desterruagaz), 82 kapellau (eta bost geiago ezetsiak), 5 kanonigo erregularak, 6 sakramentino, 8 fraile eskolapio, 2 erligioso, eta onetaz ez da amaitzen baita gañera monjak eta aitatu barik geratzen dira ta.

Gorroto eta ezbear guztiak argitzeko ez dago egia esatea langorik, eta danontzako dan moduen, ori be eguneroko bizitzeak olan erakusten emoten dau. Euskalduna euskeraz



## GOMUTAZ

egiten dauena dala, baña vasco-basque edo Euskal Erriko erri onetan bizi diranak, eta Baskonia, Euzkadi edo Euskal Errikoak dirala esan leike.

Egia zer dan? Ba orrela argitu eta esan geinke: Badira ispano-frantzesak, Frantzian; ispano-portugesak, Portugalen; ispano-amerikanuak, Amerikan; eta ispano edo espainolak, Españan. Eta orrela be, badira francoak-espainolak, franco-portugesak, franco-amerikanoak; eta azkenez, francoak edo frantzesak, Frantzian. Baita badira basko-espainolak, basko-frantzesak, basko-amerikanuak, eta bakos-basques edo Euskal Errikoak, Baskonia, Euzkadi edo Euskal Errian.

Gerra denporan Franco'ren indarrak Euskal Errian zear zelan errietan sartu, gero eskarmetugarri bertoko batzuk il egiten zituen. Galdakao errian be olango gertaera izan zan, eta illen artean Dei Egileor gaztea. Onen guraso ta senideak bizia salbatzeko epaill-aurrean espainola dala esateko esan eutsoen, baña gazte arek ez zala eta ezin ebalas esan eta ez zuala esango, da ezetz. Epailleak espainola bazala be ezin demostrau, baña eriotza agindu eutson, eta orrela bete zan, Derioko kanposantuan afusilleu eben eta.

Igorreko errian be, B. Barrenetxea bertoko deteniduén artean egoan, eta epailleak galdetu eutson: "Es ud. vasco o español". Egia esaten bildur, ta epaillari esan eutson ia azaltzen itxiko ba eutson, eta arek baietz. Orduan Barrenetxeak epaillari: "Los hombres de Bilbao y Madrid, ¿son hermanos? Sí", epailleak; "Los vascos de Bilbao y Baiona, ¿son hermanos? Si", epailleak; "Los hombres de Baiona y París ¿son hermanos? Sí", epailleak. Entonces, barriro, epaillari, "Los hombres de París y Madrid son hermanos. ¡No!" epailleak, konturatu zan da. Azalpen ori orrela argitzeak bederatzí illabeteko kartzela balío izan eutson Igorreko gizonari. Arrezkero iñoiz ez zuen arazorik izan.

Gaurko egunerarte, bai onetaz eta beste gauza askotaz be ugariago idatzi da. Orrexegaitik dakigu: Allende el Ebro se incendiaron las iglesias y en los dos bandos republicano y franquista hubo persecución y hasta rapiñería criminal. Gentes de ambos bandos que actuaban por cuenta propia impusieron y practicaron fatídicas purgas causando el mal en nombre de un partido o de un gobierno.

"¿Que hubo abusos episcopales? Claro. ¿Que hubo brutal anticlericalismo? Claro. Se achacaba a la Jerarquía de reservarse para sí de modo total, tanto la responsabilidad como el ejercicio de todo ministerio... y, en consecuencia, no pudo ser más nefasta, ya que el laico se limitaba a ser un buen fiel y un buen oyente, pero hoy no puede ser un instrumento pasivo".

Astokeririk eta maltzurkeririk andienak egiteko bideak be orduan erabilli ziran, gente ixajo koitedu medio zala. Erri onen kontra gaur be erabilli dira ta darabilliez.

"La ignorancia y la pobreza en todo bando es caldo de cultivo de todas las revoluciones y no faltó en la España republicana y en la franquista quien suministrara cuidadosa y oportunamente los gérmenes necesarios para tales acciones con la propaganda como instrumento del odio. Las mismas acciones y reacciones se producen en ambos bandos, sin importarles siquiera la suerte de los

presos políticos que podría tener el adversario. Sólo importaban mártires".

Euzkadin ere eleizak apurtu ta erre ziran, baña frankisten abioiak eginda. Baña Bilbon be ikeragarrizkoak egin ziran, bertoko gentea ilten, da errua bertokoeri bota.

"El 4 de enero de 1937, el franquismo con su aviación bombardea Bilbao, excitando sobremanera a la población. Como consecuencia de un batallón, al parecer asturiano, y grupos incontrolados asaltan en tropel las cárceles de Bilbao matando a 202 personas. En el Carmelo de Begoña, al responsable del Gobierno vasco le da tiempo y repele la agresión evitando más crímenes".

Illen artean abadeak be izan ziren.

Enterado el Gobierno de Euzkadi, hace pública confesión de los crímenes asumiendo su responsabilidad en lo que pudiera incumbirle en el sacrificio de víctimas inocentes. Solamente la constitución del Gobierno vasco salió infinidad de crímenes cuando empezó a organizar las fuerzas de seguridad. El 7 de septiembre de 1936, el comité de guerra vasco toma una resolución y desde el 7 de octubre de 1937, defensa y presidencia recaen en José Antonio de Aguirre".

Arrazoiak egiaren bidea baño ez daukola eta orregaitik be, zein alde egon leitiken euron artean, Euskal Errikoak izan, edo frantziar, espainiar, alemaniar, edo ingelesa izan. Ba danetan, danen artean, eta danentzat alde bardiña dago. Eta esaneko guzti au egia danezkero, iñork iñori iñoiz ez deutso asarrekuntzarik zertan erakusten emon, ezta gorrotorik zertan sorturik euki. Euskal Erria, Vasconia, Euzkadi zer dan Paris eta Madrillen be badakie, naiz ta Madril'dar eta Paris'tar batek baño geiagok mapa batera begitu eta apropos, interesez eta komenentziz auxe esan: "Los de aquí son vasco-franceses y los de aquí, vasco-españoles". Baña erantzun ezker: "para que haya vasco-españoles y vasco-franceses tiene que haber vascos sin más apellido. Entonces cual es el pueblo y país de los últimos".

Or agiri da eta erakusten emoten da Paris'eko eta Madrilleko orreik aprobezko, interesezko guzurretan dabizela euron komenentzirako lelaren bateri guzurra sartu eta engañatu naian. "Mentir expreso no es para provecho de una paz, ya que ésta exige la verdad para todo el mundo.

°Quien niega los derechos etnológicos y la historia, se niega a sí mismo". EUSKERAZALEAK elkargoaren «ZER» illeroko aldizkari (135n Zenbakia Azilla 1989) orrentan IZKUNTZAK artikuluan dakar: Euskalerrikoak –batzuk izatez eta beste batzuk bizi izatera etorri eta emengo bizi-lagun diralako– guztiok Euskalerrikoak gareala esaten da. "Vascos son todos los que viven en el País Vasco. Todo el País Vasco somos una única «Sociedad»". Euskalerrí guztia «Alkarte» bat gara, naizta Iparralde eta Egoaldean euskereagaz prantsesa baten ta gaztelera bestean erabilli.

"Todo el mundo tiene derecho a saber euskera. Y todo el mundo tiene derecho a que ud., tú, le respondan en euskera. El vasco al llamarse euskaldun se define a sí mismo por su lengua, ya que el Iazo más fuerte de la cultura común es el euskera. Pero al euskera se le ha perseguido en la escuela, en la iglesia y en todas sus facetas



para aniquilarlo, borrando así todo vestigio euskaldun aún en los anuncios bilíngües. Y enseñando maestras que no saben euskera a niños que no saben castellano".



hombres que no la tienen. Esaneko auok Irujo jaunak neroneri be ziurtatu eustazan.



"Desaparición del anuncio en euskera después de la guerra.

Es la propia Vasconia o Euskal Erria la que, por medio de sus propias leyes debe promover para todos el total uso y normalización del euskera empleando todo el peso de la ley contra los detractores".

Karlistadako gerrea zan eta Arratiako Areatza erri-aldean gizon bat, ilten egoan, eta auxe esaten ei eban: Ene Jaungoiko laztana, au da nire atzena, nik il egin bear. Eta liberaletako abade erdaldun bat atzeneko arnasetan laguntzen eta esaten: "Déjese de Jaungoikoa, hermano, y acuérdate más de Dios". Abade ori bai zala birigarroa. Jaungoikoak emonak zaindu bearrak doguz eta norberen etxea defendidu-bearra daukagu.

"D. Francisco García, oriundo de Soria, afirma, y dice en El Correo Español-EI Pueblo Vasco (22-9-1984): Sostengo en mi libro que la cultura iberoeuskérica tiene ocho mil años. Entonces se hablaba en euskera en todo España. En esta afirmación se incluye a Portugal".

Baña euskeraren alde eta Euskal Erriaren jakintzeagaitik zebillen guztia, abade ta fralle ta euren artean, ezetsiak izaten ziran, eta norberen lurraldetik be gerra denporan urrundu egin bear, batera edo bestera. Batzuk Londres, Ingalaterrako kapitalera joan ziran, Euskalerriko abade batzuk izan ziran da. "Como consecuencia de la guerra española y hallándose algunos sacerdotes vascos exiliados en Londres, lo pasaban muy mal y con mucha hambre. El mismo D. Manuel Irujo, nacionalista vasco de tierra de Estella en la ribera de Navarra, en Londres se fue a visitar al cardenal católico inglés Hinsley, quien le dijo que se atenía al documento del episcopado español (de Franco) y sobre la ayuda al cura vasco, que no. Entonces, enterados unos pastores protestantes se fueron a socorrer con dinero al cura católico, quien lo rechazó, no lo admitió. Irujo comentaba que entonces hizo esta reflexión: Los hombres no se dividen ni por derecha ni por izquierda, ni rojos ni blancos, sino por hombres que tienen caridad y

Argazki honetan, leio aurrean dagoen abadea, D. Gabriel Manterola dogu. Beronek be Londres'en amabi urte egin zituan, batzutan estu ta larrialdietan bizi izanez, emen euskeraren eta euskal jakintza edo kulturaren alde lan egiteagaitik. Erdien aurkitzen dan abadea D. Jose Arrizabalaga, Zeanuri'ko parroko jauna, eta beronen ezker-aldean, txapel barik, D. Martin Orbe.

Jose Sagarna zanaren abadetza eriotza dala-ta, uste dot esan diran guztiak esan-bearra egon dala, Jose'ri buruzko argibideak ulertzeko bide eta medio bakarria egia baño ez dalako.

Lenengo argazkia Zeanuri'ko abade izan zan D. Gabriel Manterolari ezker, antza beren anaiak eginda dago. Besteok neronek egiñak dira.

Eta azkenez, eskerrak emon, lekuen lekuko jenteari, beartxo onen barriok argitzeko lagun izan diralako.

**1998-II-17a. Barrenetxea, Jose Mariano**



## ITXAS-ALDEREN BARRIAK


Udea aurre-aurrean daukagula-eta, ITXAS-ALDEkoei zereginak biderkatzen joakez. Maiatzean bertan, Busturialdeko Dantzari Txikien Jaian esku artzeko Busturian izan ginan (azkenean, euriaren erruz, ezin izan genduan dantzarik egin). Baita Euskalerriko Dantzari Egunean (Sopuertan) eta Bizkaiko Dantzari egunean (Santurtzin) be izan ginan. Beste alde batetik, ezkontza batzuetan dantzatzeko deituak izan gara, datozen ileetako egun batzuetan, bai Bakion eta bai beste erri batzuetan be.

Aurtengo Nazioarteko Folklore Erakustaldian, garagarriaren 30ean, atzerriko talde bi izango dira gure artean Bakion: «Maikan Sumaj» Rojas urikoa (Argentina) eta «Sakpate» Lome urikoa (Togo). Ganera, Euskalerriko beste toki batzuetan dantzatzeko dira, egun orren inguruan. Onen truke 1999ko zezeilean, gu geu Rojasera joateko asmoa dogu. Naiz eta atzerriko taldeak ekartea eta euren egotaldia Bakion antolatzea guretzat aalegin andia izan, oso garrantzitsu eta guztiz aberasgarritzat jotzen dogu ekin-tza onetan jardutea.

Beste alde batetik, abuztuaren 15eko ekitaldiak prestatzen asita gagoz, betiko lez, aurreko urteetakoak obetzeko asmotan, aal bada, eta dantza, koreografia, musika tresnak, jantziak eta abar barrituko doguzala. Egia esateko, ITXASALDEko kideen asmo barriei esker, urtean-urteango barrikuntza oneek lortzen doguz.

Azkenik, gogoratu gura deusuegu be, ITXAS-ALDEREN 25 urteko historia kontatzen deuskun liburua gure artean dogula, eta eskuratu gura dozenok zapatuetan, goizeko 11etatik arratsaldeko 5etara ensaiatzen dogun tokietara etortea baino ez daukazuela.

### ITXAS-ALDE Euskal Kultura Taldea



### UME BIOTZA GOIZERO

Bizia itsu itsu  
odolean bultzaka  
irakitan dauka;  
suzko garra dirudi  
izarrari ostuta,  
oro deadarka.

Mendiaren ederra  
asper bageko itza  
goizero sortzen zan  
dantzan ebiltzan goian  
urrezko ezteguak  
izadi baratzen.

Ume arteko garrak  
mendi sua dirudi  
aize bultzadetan;  
geldirik ezin egon  
suzko mendia legez  
aldatz igerretan.

Izar itzal eziñak  
bildurrez doaz iges  
eguzki aurrean;  
ortza dago ez-titsu  
andre gai baten antzo  
ezkontza goizean.

Gau illuna ba-dator  
jolasez asetuta  
loak makurturik;  
oial zurizko oian  
gorputza arri antzo  
begiak itxirik.

Itza jariotan dagoz  
arkaitzak gaillurretan  
pozaren kilimaz;  
gure mendiak dabiltz  
euskal arima sortzen  
giz jakituriaz.

---

## ARATOSTEAK (IAUTERIAK)

---

Aratosteak dirala- ta, gure errietan jai oneek ospatzeko antxinako era batzuk agertuko deusuedaz, oraindik gaur bizirik dagozanak.

Esate baterako, Lantzen (Nafarroa) eta Zalduondon (Araba) antxinako erara ospatzen dira, dantza eta kolorez beterik. Lantzen, MIEL OTXIN pertsonaiaren inguruan, ain zuzen be. Orrelako ospakizunak erri askotan egiten ziran, baina tamalez galduz joan dira.

Markina, Arano eta Goizuetan, makilaz jotzen daberen zaagi-dantza egiten da. Gernikan, lurpean sartzen daberen oilarraren jokoa. Beste erri batzuetan zaldi ganetik egiten

dabe antzar-jokoa. Beraz, ainbat erritan egiten dira antxina-antxinatik ospakizun bitxi eta bereziok, bearbada guretzako misterio utsa diranak.

Eta amaitzeko, aitatu bearrekoak dira Lapurdi eta Beena-afarroako aratoste koloretsuak eta Zuberoko Maskaradak, oneek, pertsonaia, dantza eta antzezleen aldetik garrantzitsu eta aberatsenak Euskalerrian.

**Unai BEITIA - Artzakoa  
ITXAS-ALDEko dantzaria**



**B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ**

---

---

# BAKIOKO EUSKEREA

## (IÑAKI GAMINDE'GAZ BERBETAN)

### (ERRIARENGANDIK ERRIARI)

---

---

«Leengo lepotik burua». Nonork izana eta izena gorde-ten dauazalako esaten da aurreko euskal esakera zaarra. Izenari, baina, berbakuneak emoten deitso izana. Alan bada, Bakiori bertoko euskereak emoten deitso izana. Izana gorde-ten dauana bere buruagaz bat etorten da. Orrek berorrek izena merezi izaten dau. Iñaki Gaminde bilbotarra Bakioko izana batuten eta ikertuten jabilku etxerik etxe, baserririk baserri, Bakiok izena galdu ez daian. Bakioko berbakune ederra eta aberatsa ez dakigun galdu.

ZER.— Ibili, bazabilz ibili, Iñaki, asteotan baserririk baserri, etxerik etxe Bakioko euskerea andik eta ortik batu guran. Zer dala-eta?

IG.— Zuok esanda. Bakioko udaletxetik deitu eusten, euskera teknikaria dan Josebak, ea Bakioko euskerearen ganean zeozer batuteko prest egongo nintzakean. Pozik onartu neban eta amen nago, zuon artean, bear ori egiten.

ZER.— Zelan sortu da asmo ori?

IG.— Egia esan, nik ez dakit zelan sortu dan. Nik pentsetan dot, erritar batzuk bearrian ori ikusita sortu dala. Udalaren inguruan edo. Ea ori egingo neban esan eustenean, ba, egitekotan kontaktiak euki ezker, sano pozik egingo neballa esan neban eta arrezker orreri ekin izan deusot. Orain, asmoa zelan sortu dan, zergaitik edo zeren inguruan, ez dakit, egia esan.

ZER.— Bein batu bearrekoa batu ostean, zer egiteko amesa dozu guzti orregaz? Noiz artean ibiliko zara gure artean?

IG.— Zuek bota arte. Batu, sekula be ezin leiteke dana batu. Aal izango doguna batuko dogu urte onetan zear. Emetik eta udara arte, Bakioko euskereari buruzko liburua edo dana dalako ori idazteko asmoa daukat. Beti pentsatu bear da, baina, erriaren jakituria osoa ezin leitekela batu. Bizitza osoa bearko litzake orretarako. Krutwigek esaten dau: «norberaren ama-izkuntzan sakonduteko eta bera guztiz menperatu aal izateko bizitza osoa bear dala». Erbeste-koa izanda, are gatxagoa da. Urte onetan azalekoa batuko dogu, baina ondino asko lotuko da batuteko, mamina lotu be. Gerokoan, biarko egunean. Ganera, kanpoko eraginak

dirala edo barruko eraginak dirala, euskerea bera eta izkuntza guztiak be aldatuz joaten dira. Onek guzti onek ez dau esan gura Bakioko euskerea landuko dogunik. Aurrera oinkada bat egingo dogu. Abiapuntua errotuko dogu, oinarri batzuk iminiko doguz. Ortik aurrera gauzea sendotu eta ikertuten jarraitu aal izateko. Gauzak ez dirala ain errez amaituten eta au abiapuntua besterik ez dala izango pentsatu bear da. Au da nire pentsakerea, beinik bein.

ZER.— Eta batu bearrekoa batu ostean, aitatu dozu liburu bat egingo dozula. Ezer geiagorik egitea pentsatuta badaukazu?

IG.— Liburu bat egiteko material asko daukat batuta: emeko jakituria, berbak, eta abar. Jendearen jakitate entziklopedikoa edo dana dalakoa liburu baten batuko dogu, erriarrentzako izango dan liburuan. Zeozelan, erriarengandik artu dogun jakitatea atzera emoteko edo biurtuteko. Beste bear bi geiago izango litzakez. Alde batetik, Bakioko euskerearen ganerako liburu edo lan linguistikoago bat egiteko asmoa daukat. Ori espezialista edo arlo orretan ibiltzen dirarentzako gauza bat izango litzake. Ez dakit publiko osoarentzako izango litzaken ala ez. Beste aldetik, testoak, berbak-eta entzun aal izateko CD-ROM euskarrian imini gura dodaz. Ze askotan berbea papereratu egiten danean -jakina, paperean be atara bear da irakurri aal izateko- ez dogu jakiten zelan esan bear dan. Gaur egun, badaukaguz teknologiak eta berben doinua bera gorde aal izateko. Ta ori betiko lotu daiten CD-ROM teknologia erabiltea da. Ez dakit ori, gero, komertzializatuko dogun ala ez. Nik beintzat errian itziko dot, material ori eskolan eta abarretan erabili aal izateko. Oraingoan, ori da asmoa, gitxi gorabeera.

ZER.— Ondo esan deusue bakiotarrek? Zelan ikusi dozuz bakiotarrak?

IG.— Ederto. Orain arte, beinik bein, ederto. Autortu bear dot, Bakio erriari olango erra antzekoren bat beti euki deusodana. Ez gorrotorik, baina bai, olango, ez dakit, erra antzekoren bat. Erri erdalduna dala pentsatu izan dot beti. Baina, nik Bakio ez dot ezagutu izan oraintsura arte. Udaltiarren aldia ezagutu dot. Aretzearen inguruko giro ori. Orduan, Bakio erri erdalduna dala eta bertan ia euskaldunik ez dagoala beti pentsatu izan dot. Antxina, bai, egin

nebazan itaunketaren batzuk, baina beti euki dodaz arazoak barriemoile euskaldunak-eta topetako. Orain konturatu naz, baina, badagoana itxurazko Bakio, azaleko Bakio, tabernen eta aretzearen inguruan batuten dana. Konturatu naz, beste alde batetik be, azpitik erria badagoana. Azpian dagoan erri euskaldunak, erri guztiz euskalduna danak, agirian ez dagoanak, sano euskera ederra erabilten dau. Eta niretazko ori ustebakoa izan da. Orrek, apur bat, jokoz kanpo arrapatu nau, ez nebalako inoiz pentsatu Bakio ain euskalduna izan eitekeanik, ez eta ain ondo esango eustenik be. Egia esan, Bakion lez leku geienetan artu izan nabe. Nik ez daukat orren kexarik. Euskaldunen artean, ba, beti moldatu izan naz ondo. Bakion, ba, egon garan leku guztietan ateak edegi deuskuez ta kontatu be, euren gauzak-eta kontatu deuskuez. Irakatsi be, gauza asko irakatsi deuskuez. Ta pentsetan dot emetik aurrera be olantxe izango dala.


ZER.– Jakin izan dogunetik, Euskalerriko, batez be Bizkaiko, beste errietan be antzerako batuketak egiten ibilitakoa zara. Esango deuskuzu onen ganean, apur gorabeera, zer izan dan zuk bizi, entzun eta ikusi dozuna?

IG.– Apur gorabeera izan bear dau, ze, bearbada, gogotan daukadazan gauzakaz bakarrik be liburu bat egin neike. Urte batzuk egin dodaz arlo onetan. Izkuntzea, berbaketa ikasi dodaz, baina berbakaz batera mundua ikusteko beste era bat be ikasi dot edo, obeto, ikasten nabil. Euskaldunen begiez mundua ikusteko beste era bat. Euren bizipenak irakatsi deustez. Ikasi dodazan berba ta esateko molde asko garrantzitsuak dira, batez be, nire bearra ori izan da-eta. Arlo onetara leengo orrek bultzatu ninduan. Baina urteekaz batera..., orregaitik ez dot izten. Bearbada, zaletasun linguistiko utsa izan bazan, onezkero gogaitu egingo nintzan. Baina ez dot pentsetan inoiz gogaituko nazanik, izkuntzeaz gaz batera, biziten be irakatsi deustelako eta kulturearen zertzeladak-eta emoten deustezalako, eta azkenean, euskal kulturaren partaide egiten nabe. Ni euskaldun barria naz eta euskaldunen artean integratu guran, euskerea ikasten asi nintzan. Bear onen bidez lortuten dot, neurri baten, ba, euskaldun normala izatea. Gauza asko ikusi dodaz eta ez Bizkaian bakarrik -ori be esan bear dot, orretan suerte andia euki dot eta- Bilbotik Eskiularaino (Xiberoko ertzerik asagonean) Euskalerrri guztiko erriak ibili, leku guztietako euskaldunakaz egon eta berba egin aal izan dot. Leku guztietan ondo artu nabe eta leku guztietan zeozer ikasi dot. Ta ganera erri bat bera garana konturatu naz. Euskalerrrian ezbardin egiten dogula esaten danean, ezbardintasunok azalekoak dira. Erri bera gara Eskiulatik Bilboraino eta euske-reak egiten gaitu erri. Bardintasunak asko be geiago dira ezbardintasunak baino. Ori, nire ustez, garrantzitsua da. Egunen baten, morboa itzi bearko dogu eta zertan garan bardinak azalduten asi bearko dogu. Azaleko ezbardintasunak azalduten ibiltzen gara beti, baina bardinak zertan garan ez. Anekdotak txiki bat kontatu bear dot. Ez dakit Bakion esaten dan, baina Gatikan, bai, esaten da: «ostrukua ikusten



danean, luki-bodak egoten ei dira». Esakun ori oso polita da eta ez da besterik ori baino. Gauza bera esaten da Muxikako auzo baten: «azeriak ezkondu egiten ei dira, ostadarra edo ostrukua ikusten danean». Ultzaman, Nafarroan, ostrukuari azeri-boda esaten jako. Eta Erron zoritxarrez, azkenengo euskalduna oraintsu il da-, Mezkirizen, Mezkirizko azken euskaldun orrek fenomeno atmosferiko orreri azeri-boda esaten jakola esan eustan. Azkainen, Lapurdin, eguzkia eta euria batera ikusten diranean, «azeriak esposatu» egiten dirala esaten da. Naiz eta itxuraz berbak ezbardintsuak izan, ostrukuari buruzko kontzeptu edo ideia ori Euskalerrri osoan bat da. Eta ori gauza ederra da. Beste bat kontauko dot, niretzako gauza ederra dana. Beinola baten, zaar bategaz egon nintzan Gatikan. «Usturia» da sagarretan-eta egoten dan bedar parasittoa. Agure arek esan eustan: «durdureak egiten dauan gorotzatik usturiak urtetzen dau». Durdurea bedar moeta bat da. Lapurdin usturiari durdurelarras esaten jako. Ideia eta izkuntzea bat dira ertze bietan. Orreelango kideatasunak dagoz Euskalerrri osoan zear. Azaleko txikieria batzuk baterik eta bestera aldatuten dira, baina sakon-sakonean dagoana erri bera da, izkuntza bera eta ori benetan garrantzitsua da.

ZER.– Esate baterako, Bilboko euskerea batuten eta



ikertuten ibili zara. Eta oraindikarren zer baturik ei daukazula entzun dogu. Zer esan zeinkigu orren ganean?

IG.- Atzo bertan egon nintzan Begoñako euskaldunakaz, Bilboko euskaldunakaz, Bilbo dala-eta berbetan. Ni bilbotarra naz. Parkatu, abandotarra naz. Naiz eta gaur egun Abando Bilbo izan, a da nire erria. Txikitan, gure aita zanak basora eroaten ginduzan. Ni ondino erdalduna nintzan. Ango baserritarrakaz beste berbakera baten berbetan askotan entzuten neutson aitari. Gure aita asaskatu egiten zan eurokaz, guri olgetan joateko esaten euskun bitartean. Ni, baina, bera beste zer baten, beste berbakera baten ibilten zana, pozarren ibili be, konturatuten nintzan. Urteak joan urteak etorri, auzokide areekaz ibili nintzan -azken baten, auzokideak ziran eta- euren euskerea jasoten, Larraskitun ibili, ain zuzen be. Orreek izan ziran niri txikitan ukatu egin eustezan kulturea eta izkuntzea. Ezin izango dot nire erriko izkuntzea birreskuratu, katea eten egin dalako. Ori izango zan niri tokatu bear izan eustana, egoerea bestelakoa izan bazan. Ori batetik. Badaukat biotzean Bilboko euskerea, angoa nazalako. Beste alde batetik, gauzak arrazionalago esanda edo, esaten izan da, baita euskalzale ei diranen artean be, Bilbon ez dala sekulan euskerarik egin. Uri erdalduna dala. Esango dot pekatua, ez, baina, pekataria. Euskal idazle batek esan dau, Larramendi erdalduna zala Bilbora etorri zalako. Nik ori ezin nei onartu. Orain dala 200 urte, Bilbo uri euskalduna izan zan. Oraindino bertako euskaldunak bizirik dagoz. Ni eurokaz ibilten naz, Bilboko jatorrizko euskaldunakaz. Ori orain olan bada, orain dala 200 urte are geiago izango ziran. Nik uste dot Bilbo uri euskalduna izan dala beti, etorkizunean be alantxe izango dala eta bertako euskerea orren lekuko izan leitekela. Zelanbaist, garra gorde dabenak ikertu bear doguz, katebegiak jarraituko dauala etorkizunari erakusteko. Ori ba, bearbada, ez da errentagarria izango. Orain Bilbok emon gura dauan itxu-

rea zein dan ikusita: Guggenheim, erri kosmopolita eta turistikoa, eta ez dakit zer geiago... Baina badago beste Bilbo bat, euskaldunena. Bakion pasetan dan moduan, azpian dagoana, oso azpian, ia-ia katakunbetan dagoana esan leiteke. Nik beti ezagutu dot Bilbo euskalduna. Zoritxarrez, gure ama erdalduna izan da eta guk ez dogu ikasi, gero ikasi dogu, nagusitan edo, euskeraz. Baina beti entzun dot euskerea plazan edo erriberearen inguruan. Errekalden, beti euki dogu euskerea inguruan, azpian, lurpean. Ori azaleratu egin bear dogu orain.

Orregaitik ikerketea. Nire erderan, nik egiten dodan Bilboko erderan be, bera asko euskerazkoak dira. Nik Bilboko erderean dot ama-izkuntza eta ez da, esaterako, Guadalajaran egiten dan

erderea lakoa. Euskerearen txipristadak an-or-emen dagoz. Leku guztietan. Euskerea ikasten asi nintzanean, orduan konturatu nintzan: «kontxo au euskal berbea da», esate baterako, erderazko ORZUELO, oso nagusitan ikasi neban berbea da, ogeita amar urtegeaz edo. Guk beti BEGITXINDOR esan izan dogu. Orduan, ori guztiori ukatu egin jaku eta, oraindikarren be, esan egiten jaku Bilbo ez dala euskalduna. Eta esan bear dogu, leenengo euskal gramatika Mikoleta abade bilbotarrak egin ebala. Mikoleta Bilbon jaiotako bertako abadea izan zan. Orrez ganera, ni angoa naz. Ori da nire ingurua eta ez dot sekulan be ukatuko.

ZER.- Autorik eroateko lagun ez zarala, andreak eroaten zaitu batetik bestera. Askotan, amaitu daizun artean orduetan itxaron bear izaten deutsu. Zer deritxo berak darabilzun bear orreri?

IG.- Nik zer esatea gura dozu, ba? Batzuetan olan izaten da, ezta? Ba, itxaron bear izaten da. Beste batzuetan, bera-gaz joaten naz. Biok joaten gara. Batak zein besteak badauka bere alde ona. Asikera itaunketara beti joaten nintzan. Ordu askotan grabetan izaten zan, ori egunean-egunean. Zera, naiko luze egiten zan. Baina olakoetan gauza asko ikasten da. Beste gauza batzuk gogoratu eragin be bai. Bearbada, txarrago izaten da, bera bakarrik ibilten danean eta itxaron bear izaten danean. Itxarrotekoa. Baina, tira, osterantzean zer egin, zer ikusi ta nondik ibili be egoten da.

ZER.- Orain dala 15 urte gurera etorri zintzazan Bakio-ko euskereari buruz jakitekoak jakin guran. Nogaz egon zintzazan orduan eta zer lortu zenduan?

IG.- Leenengo itaunketea ez dakit nogaz egin neban. Naiko ganorabako izan nintzan asikera izenak-eta artuteko. Baina gogoratuten dot San Pelaio aldean izan zala,

andra bategaz, baserri baten. Aditzak batuten ibili nintzan orduan. Ori izan zan leenengo itaunketea. Bigarrena, Feliziana Abiogaz izan zan. Berba barri bi ikasi nebazan orduan. Ez neban jakin bidea eta andra bateri aren etxera joateko bidea zein zan itandu neutson, eta esan eustan: «an burra baten da». No! BURRA berbea orduan ikasi neban. Eta BIAGO berbea be bai. Geroago, Feliziana Abiogaz beste itaunketa bat egin neban, urte batzuk dirala, sintaxiaren ganerakoa. 1990ean, orain dala zortzi urte edo, beste gizon bategaz egon nintzan, emen errian nonon. Lekua ez daukat gogotan. Azkena 1993an, oraingo txandearen aurrean, Jose Mari Antxustegigaz egin neban. Ume munduari buruz ordu beteko grabaketea egin neutson. Beste bat Andereño deritxon andreak lagunduta egin neban. Azkuek berak, Bakioko euskereari buruz beraren ikerketea egin ebanean, orduan euki eban barriemoilearen alabea izan zan nirea.

Bost itaunketa orreek egin dodaz, bai. Badakizu, emen be, olako bearretan boladak euki dodaz: sintaxiaren boladea, morfologiarena... Bolada baktotxean, ba, agertu naz informazino bila. 1983an edo, aditzakaz asi nintzan eta azkenaldion azentuakaz ibili naz. Or ibili naz ainbat zere-tan. Material ori or euki dot, etxean, eta bear onetarako erabiliko dot. Orreek izan dira arteragoko bearrak. Asi, olako bearretan 1980an asi nintzan.

ZER.– Orain artekoan Bakion entzundakoa eta ikusitakoa gogoan artuta, zelan ikusten dozu euskerea Bakion? Esan gura dot, zer deritxozu Bakioko euskereari?

IG.– Nik uste dot, Bakioko euskerea euskera normala dala. Onelako itaunak egiten diranean, beti pentsetan da, ze bitxikeria edo gauza bakan aurkitu ete dauan onek. Nik Bakion sentiduten dot leku guztietan sentidu izan dodana: euskera arrunta, normala, naturala. Biziteko balio dauan izkuntzea. Baina, zoritxarrez, transmitiduten ez dana. Idietan be, buztarrian, idi bi buztartuten dira. Biei irakatsi bear jakez, baktotxa beraren bidea eta bide ori ibiltan, ezpabere besaka edo tiraka egingo dabe buztarrian. Orduan, euskereari antzeko gauzaren bat pasetan jako. Buztarri bakarrak ez dau balio. Buztarriak bikoa izan bear dau. Betiko euskerea bear dogu, euskaldun egiten gaitualako. Bakioko euskereak euskaldun egiten ditu bakiotarrak eta, maila batzuetan, bizi aal izateko balio deutse. Eta euskera batua, baina euskera ona, euskera indartsua, euskaldun oso izateko, telebista ulertu aal izateko, karrera bat euskeraz ikasi aal izateko, aldizkari ta egunkari nazionalak irakurri aal izateko, ganerako euskaldunakaz bizi aal izateko,... Baina batak ez dau bestea kenduten. Bestela, euskera biak ez badira ondo buztartuten, arriskua daukagu ankamotz lotuteko, buztarrian lez, tiraka edo besaka ibilteko. Ori da euskaldunak ikasi bear doguna. Nik pentsetan dot Bakioko euskereak badaukazala gauza onak, eredu linguistikoa, emon aal izateko. Batetik, biziteko, baina baita eredu linguistikoa emoteko be, idazterako orduan, esaterako. Zergaitik ez erabili, ez dakit, emen ikasten doguzan berbak, esapideak eta esateko

moldeak? Maila batzuetan idatzi leiz, erabili leiz euskera batuan. Euskera batuarenak diralako. Azken baten, euskera batuak euskaldun guztion identifikazino gunea izan bear dau, baita bizkaitar eta bakiotarrena be. Bakiotarrek euren euskerea ez badabe or isladatuta ikusten, ez dabe euskera ori euretaketat artuko. Or dago kakoa. Zer emon leiken Bakioko euskereak? Ba, gauza asko, doinutik asita. Euskera batua Bakioko erara agozkatu leiteke eta izan leiteken batuaren agozkate moldetik parajeago egon leiteke. Morfosintaxiatik morfologiaraino gauza asko emon leiz. Gramatika moldeak be badagoz, sano baliagarriak diranak. Gaur entzun dogu: «Jainkoak libra gaizala». Ori liburuetan-eta agertuten da, baina gaurko andreak gauzarik normalena izan balitz lez esan dau. Ori euskera batua be bada. Zergaitik ez da izango, bada? Leengo eguneko andra batek bere gizona zala-eta esaten euskun:

«Jainkoak eukiko aal dau zeruan». Nik uste dot ori euskera dotorea dala eta betiko euskera dotore ori erritarrek badakie, egokiro, zelan eta noiz esan bear dan. Txarrena da, euskera barriak molde bakarra emoten dauana, egoera guztietan bat bakarra. Izkuntzak, baina, ez dira orrelakoak. Izkuntzetan gauza ederrak esaten jakin bear dogu, asarratuten jakin bear dogu, eta biziten jakin bear dogu. Orretan, Bakioko euskerea bakiotarrentzat guztiz baliagarria da. Gero, badaukaguz lexikoa, esakunak, modismoak, entonazinoa,... Dana da aprobetxagarria, dana da baliagarria. Bardin Bakioko euskeran, zein Amikuzekoan, Euskalerrri osoan. Azken baten, euskereak bikotxa izan bear dau. Idi-buztarria dan moduan. Nik ori argi ta garbi ikusten dot. Emen gauza asko ikasten dodaz. Nire euskera eredia, baina, Gatikako euskeran guztiz finkatuta dago. Ez dodaz, zoritxarrez, Bakion ikasitako ainbat eta ainbat gauza nire eguneroko euskeran erabilten. Niretzako BIAGO berbea, berba teknikoa da. Goi-mailako berbea eta Bakioko base-ritar bateri ikasi deusot. Gaur arratsaldean entzun dogun ALKAR PODEROSO ori izkuntza juridikoaren berbea da. «Usufuktu» berbea be ez dogu erabili bear. Gaurko gizonak «usufuktu» euskeraz GOZAMEN esaten dala esan deusku. Ez dogu zertan beste barbarik asmatu bear. Kasu orretan, berbea Bakiotik artu geinke-eta. Berba ori Bizkai osoan zabalduta egon arren. Edo dalako berbea erabilten dan lekutik. Edozein baserritarrek dakien berbea izango da. Ez deusogu izkuntzeari, desagertu izan balitz lez, begiratu bear. Ingelesaren kasuan, dirutza andiak ordainduten doguz seme-alabak Inglaterara edo Ameriketara bertakoakana ingelesa ikasten joan daitezana. Guk gure erritarrak euskerea irakaste-ikaste-ko ez doguz aprobetxetan. Euskerea desagertu izan balitz lez irakasten dogu. Eta iztunek egiten dabe izkuntzea. Ori gramatika generatiboaren oinarria da, linguistikoki ikusita. Iztunak bere berbetan garmatikea euki badauka. Gure bearra ez da gramatika ori aldatutea, gramatika ori azaldutea baino. Nik olantxik ikusten dot. Etorkizunari begira zer? Nik esango neuke, une onetan garrantzitsuagoa dala familian transmitiduten dana, beste inon ikasten dana baino. Ori da etorkizunerako



## EUSKEREA

oinarria. Eskolea sano garrantzitsua da, komunikabideak be bai, baina etxeko transmisinoa, betiko euskerea seme-alabei lotsa barik eta ezelango konplexu barik transmitidutea etorkizunari begirata da. Nik, beintzat, ez daukat dudarik orretan.

ZER.— Baikoko euskereak musikalidade berezia euki badauka. Orregaitik erdaldunek urteetan Bakioko euskaldun askori barre egin izan deutsee, jakin barik izkuntzearen aberastasun itzela dana. Arlo orretan jakitun zaran aldetik, zuri zer begitanduten jatzu dalako musikalidade ori?

IG.— Itaunari erantzun baino leenago, erreflexino txiki-txua egin gura neuke. Askotan, erdaldunei-eta esaten entzun deutset: «ez dakit nongo euskerea, euskera txarra dala».

Erdaldun batek ez dauka kriteriorik, ez dauka jakitaterik euskerearen ganean ezer be esateko. Euskaldunok ikasi bear dogu erdaldunei esaten eta erakusten, eurok Guadalarjako erdereza epaituteko jakitatea badaukela, baina ez euskereari buruz ezer be esateko. Are geiago, euskaldunon artean be. Zergaitik izan bear dau emengo euskereak orkoak baino txarragoa edo angoak baino apalagoa? Ez dago kriteriorik orretarako. Izkuntzak balaiagarriak dira, iztunei balio izaten deutesen artean. Eta emengo iztunei, emengo erritarrei bertoko euskereak gizaldi eta gizaldietan biziteko eta kultura egiteko balio izan badeutse, zergaitik orain ez? Zer da kulturea, bada, gizakiok mundu onetan aurrera biziteko egiten doguna baino? Esangura antropologiko batetik ulertuta ori da kulturea. Erdaldunek gura dabena esan daiela. Beti esango dabe guzurra. Gai oneri buruz tutik ez dakianak beti esango dau guzurrezko berbea. Ez dauke eskubiderik, ez oinarririk orretarako. Ori da ni suahili izkuntzeari buruz zeozer esaten ausartuko banintz lez, tutik ez dakidala. Zer esango dot, ba, suahili izkuntzari buruz ezer ez badakit? Amen bardin pasaten da. Errespetu eta edukazino kontua da. Azken baten, Inglaterran egonda, bertakoei ez bajake izkuntzea zuzenduten, emekoei are gitxiago. Jendeak badaki zer esan bear dauan eta, ganera, oso ondo egiten dau euskeraz. Obeto egin leiteke beti, baina tira... Ori da leenengo gauzea. Gero, musikalidadea dala-eta, esan bear dot, musikalidade berbeaz erdaldunek zer ulertuten daben ez dakit, baina fonologo nazan aldetik, emen egiten dan izkuntza erdua (Getxotik Mutrikuraino-koa) Europa osoan beste iru izkuntzatan antzera, eta ez modu berean, iru izkuntzatan baino ez dala egiten. Emen daukagun altxorra ez dakigu guk preziatuten. European norvegieraz, suedieraz, serbo-kroatieraz eta alemaneraren dialekto batzuetan antzerako gauzaren bat pasetan da, PITCH-ACCENT deritxon moldea egiten da. Azken ori izkuntza tonal eta bestetarikoen artekoen moldea da. Orrek itzelezko balio linguistikoa dauka. Baina, euskaldunontzat bakarrik ez, munduko izkuntzalari guztiontzat itzelezko balioa dauka. Eta amen daukagu, etxean daukagu. Guk egiten doguna da. Gatikako euskerea orretan gauza berorretan

ikertuten egon naz. Igaz, Grezian, mundu osoko kongresu baten, egon nintzan eta Ameriketa, Japoniako,...linguistak liluratuta lotu ziran gure euskerearen molde ori dala-eta. Bearbada, baten bat kanpotik, asagotik etortea bear izango dogu, guri etxean zer daukagun esan dagiskun, guk ori ez dogulako preziatuten edo. Onetan, bada, linguistika orokorrean, zientzia moduan artuta, emengo euskereak badauka itzelezko garrantzia. Arazoa, emengo linguistok, Euskalerriko linguistok ez garala gauza bera ondo deskribatuteko, orretan gabilzan arren. Errua ez da euskerearena, geurea baino. Ori Axularrek antxina esan eban: «Euskerea gauza ez bada, errua ez da euskerearena, euskaldunon jakitaterik ezearena baino». Ori pasetan da gaur egun be. Niretzako ori munduan erakusteko gauza garrantzitsua da, eta ez Espainian bakarrik. Azken baten, Espainia munduko kulturearen puntan inoiz egon ez dan erria da. Espainiak ez deutso munduari kultura mailan gauza andirik ekarri, inkizizinoa izan ezik. Europa eta mundu zibilizatuan ez dot oraindino Espainia sartuten. Bakioko euskereak, ostera, badauka zer erakutsirik.

ZER.— Bakioko gazteen artean, zoritxarrez, euskera gitxi be gitxi entzuten da, ia bapez entzun be. Bakioko euskerarik, oraindinkarren gitxiago. Zeozelan, euskereak Bakion balioa galdu dau. Alandaze, euskerearen transmisinoa eta etorkizuna Bakion egoera negargarrian dagoz. Zer esango zeunskie Bakioko gazteei euren nortasunari eutsi daioen?

IG.— Nik ez daukat errezetarik. Zoritxarrez, bearbada, ez da egongo errezetarik orretarako. Baina, internet, informatika eta olako gauzak etorri diranetik ona mundua gero eta txikerrago dala pentsetan dot nik. Geroago eta txikerrago izankeran, danok alkarrengandik geroago eta parajeago gagozana konturatu naz. A ta guzti be, ingelesa bear dogu, alemanera be bai, turkiera be, zergaitik ez? Zenbat eta geiago jakin, zenbat eta izkuntza geiago jakin, burua zabalago eukiko dogu danok eta aberasgarriago izango da danontzako. Baina, euskaldunok mundua gure begie ez badogu ikusten, ez gara izango euskaldun. Eta ez gara Ameriketako erriarrak be izango. Ori be esan bear dot. Askotan esaten dogu Espainiako inperioa txarra izan zala. Ingelesen inperioa ez zan ohea izan. Euren erabili, euren onerako erabili egingo gaitue eta ez gaitue amerikartzat inoiz artuko. Ganera, istoriea gauza askotan errepikatuten da. Erromatarrek be, orain dala bi mila urte erriak zapaldu egiten ebezan. Zapalduetariko batzuk egiten ebezan erromatar, ez zapalduetako erri gutzia, baina. Erromatartzat artutako areek euren onerako erabilten ebezan. Euskaldunok orduan ikasi genduan erromatarrek alkarregaz biziten. Ez gara erri itxia izan. Guretik mundu gutzia igaro da. Gipuzkoarrak, orduko barduliarrak izan ziranak, erromatarren mertzenarioak izan ziran. Ori dokumentatuta dago. A ta guzti be, orduko euskaldunok jakin eben erromatarrei ikasten, norberarena galdu barik. Euskaldunok jakin bear dogu amerika-



rrei, ingelesi, alemanei ikasten, eurokaz alkarregaz biziten. Eurok aina europarrak gara, eurok aina modernoak, baina geureari eutsi bear deusogu, au da, euskeraz egiteari eta euskera transmitiduteari. Modernidade kontu onetan nik itxaropena daukat. Nik pentsetan dot, onarri sendoak etxean badagoz, etxean ipinitako eta eskolan landutako oinarriak. gazte oneek aurrera atarako dabela euskerea. Arduragarriena, ez da kontzientziarik ezea. Batzuetan esaten da, kontzientziarik ez dagoala eta nik ez dakit au guztiau kontzientziarik eza ala tresna linguistikorik eza dan. Etxean euskerea ez dalako ondo transmitidu eta eskoleak ez daualako aprobetxetan jakin izan etxetik datorren altxor ori. Beraz, ingelesari bai, txinereari be bai, baina euskerea besteen parean, gitxienez, Euskalerrian besteen ganetik egon bear badau arren. Bakioko gazteei orixe esango neuskie, guk gure sasoikoek, bearbada, Benito Lertxundi bear dogu, eta oraingo taldeak, Su ta Gar eta olangoak, be bai. Orixo izango litzake mezua. Gazte orreek euskeraz egingo dabela itxaropena badaukat. Betiko euskerea be gaurko euskereagaz buztartuten jakingo dabela, biarko euskal kultura osoa euki daigun. Gaur egun, euskerea ingelesaren ondoan badago interneten. Ori pozgarria da euskaldunontzat. Euskereak orretarako be balio dau-eta.

ZER.— Eskerrik asko!

### NOR DA IÑAKI GAMINDE?

1958. urtean Abandon jaio zan. Butroiko Ester Elgoibargaz ezkondata dago. Seme-alaba bi daukez: Jon (12) eta Ursua (8).

Begoñako Txurdinagan bizi dira. Amazazpi urtegaz ikasi eban euskeraz egiten. Iñaki gatikarra ez izanda be, Gatikako euskeraz ederto baten egiten dau. Urte batzuetan beargin lez fabrika baten bear egin ostean, magisteritza eta euskal filologia ikasi eta amaitu ebazan. AEKan irakasle ibili da urte askotan. Euskal filologian Doktore da eta Euskal Herriko Unibertsitateko linguistikako irakasle dogu Deustuko Magisteritza Eskolan. MENDEBALDE izeneko euskera taldeko kidea da. Ainbat eta ainbat liburu eta aldizkari berezitueto artikulu idatzi eta argitaratuta daukaz. An-or-emenka ibiltan da, Euskalerrri osoko errietako euskerak ikertuten. Geien bat, fonetika esperimentalala, lexikologia eta izkuntzearen didaktika dira beraren ikerketa arloak.

Beraren liburu eta lan monografikoen artean:

- ADITZ ETIKOA (AEK, 1984)
- ADITZA BIZKAIERAZ (UEU, 1984-85)
- ADITZA IPAR-GOINAFARRERAZ (UEU, 1985)
- AHOZKO BIZKAIERAZ (AEK, 1988)
- BIZKAIERAREN AZENTU-MOLDEZ (LABAYRU, 1995)
- Tokian tokiko euskerearen ikerketa bereziak eta liburu eran argitaratuak: FORU (1989), LEIOA (1989), BILBO (1990-94), ABADIÑO (1991), OTXANDIO (1991), URDULIZ (1992), SOPELA (1993), GATIKA (1997),...

Orrez gan, urrengo aldizkarietan be idatzi dau: FONTES LINGVAE VASCONUM, BERMEO, ELE, UZTARO, ETNIKER, LITTERAE VASCONICAE, ENTSEIUKARREN, GAUONTZA SORTA...

**Iniaki MARTIARTU**  
**1998ko epailean**





**Bizkaiearen barruan  
Bakioko -IE sistemearen  
nagusitasuna.**



## EUSKALDUN BARRIENTZAT




Orri onetan, biotz, marazkillo, untxi, arrautza frijitua. Belarri, untze ta aizto bat dagoz.



ruadlizv

KARMELE



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

Depósito Legal: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO